

Maritxu Ezenarro Idiak

*Getaria,
Gipuzkoa (1929)*

Aurkibidea

Biografia



Getariako Aldamar kaleko kale-baserri batean jaio zen ("Higinionekua"). Aita arrantzalea ere bazen. Alaba nagusia izaki, ondo ezagutzen ditu baserriko eta arrantzako lanak: ganadua gobernatzea, despeska... Kontserba-fabriketan ere lan egindakoa da.

Zintak

GET-017

- **Proiektua:** Getaria: euskara eta itsasoa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2006-11-18

- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Transkribatzailea(k):** Zabaleta Zuloaga, Miren

Pasarteak

1. Kale-baserrietan abere gutxi

- **Erref:** GET-017/001
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Kale-baserriko bizimodua; itsasotik eta baserritik bizi ziren. Aitak lan asko egiten zuen. Txerriak hazten zituzten etxean. Ganadua, oiloak... izaten zituzten, baina gutxi. Inguruko kale-baserrietan ere antzera.

2. Gerra denboran jangelak jarri zituzten pobreentzat

- **Erref:** GET-017/002
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:02:20. **Bukatu:** 00:04:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Politika » Jarrera politikoak » Falangistak

Laburpena:

Fabiolak palazio haundi bat zuen, Kale Nagusira ematen zuena. Gerra denboran, neskek, erreketek jantziekin, desfilea egiten zuten, eta etxe horretatik irteten ziren. Falangeak bi etxetan jarri zituen pobreentzako jangelak: Rosanekoan eta Pelaionekoan. Beraiek ez zuten goserik pasa, baserrian jana bazutelako; baina eskean joaten zitzaizkien baserrira kaletarrak.

3. Emakumeen lana mallako arrainarekin

- **Erref:** GET-017/005
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:10:05. **Bukatu:** 00:12:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Antxoa
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak

Laburpena:

Fabrika txikiak eta bodegak atetik atera zeuden. Italianoak apopilo egoten ziren Rosanean edo Pionean, Italian antxoa oso estimatua zen eta. Arraina

etortzean emakumeak ilaran jarri eta saretik burua kenduta otarrara botatzen zuten arraina. Hortik saltzera eramaten zen. Antxoa horrek brillo handiagoa izaten zuen majuran harrapatutakoak baino.

Transkripzioa

- Asko zan, bai. Idxa atetik atea.
- Bai, bai.
- Ta fabrika txikidxak'e, atetik atea.
- Hori bai, ez?
- Bai.
- Bodegak eta?
- Bodegetan jartzen zan antxua, mallan etortzen zan antxoa guztidxa, ba, hor, italianuak etortzen zian ta apopillo jartzen zian Rosanian ta Pelaionian. Bai. Nik haidxek goguan dazkat. Gizon diferentia beti ikusten giñuzela, italianuak. Eta hoidxek benta juten zian ta gure aita [...]: "Aquí viene San Francisco lleno de pescao" ta, bentako listo eoten zian. Ta geo, mallako arrai hori arrai diferentia izaten zan egunez majuan harrapatzen zuenan aldian, e! Porke, saretikan jartzen giñan filan, emakume pillo bat, arranpalian, eta saria luzatzen zan antxoz beteta, ta geo deskabezatzen zan saretikan burua sangratuta, eta otarrea botatzen gendun. Kendu ta otarrea, kendu ta... Geo haura benta juten zan. Ta hori konserban iten zuenian ikusi in behar zan haren koloria zer zan! Plata koloria erteten zun antxo hark!
- Diferentia.
- Bai, diferentia. Baiña brillo batekin! Sangratutakua beste gauza bat. Eta estimaziyua izaten zuan hamengo antxuak Italidxan. Eta etortzen zian epoka horretan antxua itea.
- Ta hori mallakua?
- Mallakua. Eta majuakua're bai, baiña mallakua zan konpletamente... Zea ematen zuan, brilluan brilluakin, zillarrezkua. Oso... plantxa dana ta oso-oso, oso polita izaten zan. Ta antxoa lanian'e asko ibili gea gu. Udaberridxan beti danok.
- Klaro, ordun emakumiak eta...
- Ta despeskan, txingorretan ta, goizeko bostetan jaiki ta, lau t'arditan jaiki ta, hantxen. Geo ardo goxua ematen ziguen galletakin...
- A, bai?
- ...ta hantxen.
- Epeltzeko?
- Pixkat berotzeko o ematen ziguen ta. Holaxe bizi izandu gea, oso bizimou polita zan bestela hamen.

4. Dantzarik ezin zuten egin bekatua zelako

- **Erref:** GET-017/007
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:13:05. **Bukatu:** 00:15:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Banda polita zuten herrian eta inguruetatik jendea etortzen zen dantzara.

Orduko doinu batzuk abesten ditu. Eurak ez zuten dantza egiten debekatuta zegoelako. Hijas de María kongregaziokoak ziren eta ondo zaintzen zituzten dantzarik egin ez zezaten. Dantza eginez gero listatik borratzen zituzten. Meagara ere joaten ziren erromeriara, baina goiz etorri behar izaten zuten etxera.</p></div>

- **Erref:** GET-017/008 - **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:15:32. **Bukatu:** 00:17:54 - **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak - Aisia » Kultura » Musika

Meagara joaten ziren erromeriara San Isidroetan; trikitia egoten zen eta dantza-soltean aritzen ziren. Eurak goiz etorri behar izaten ziren etxera egun argiz itzultzeko. Inguru guztietako jendea biltzen zen Meagan eta bertan egiten zuten askok afari-merienda. Musika-banda beti ezagutu du herrian.

- Eta erromeita ordun, e, Miara? - Miara juten giñan. Han trikitixa jotzen zuen ba, ta suelto iteko amorratzen eoten giñan. Eta hura're berandu hasitzen zan ta ez giñan bate disfrutatzen. - Ta jende asko juten zan? - Bai! - Bertatik,Getaitik eta? - Bai. Udaberridxan asko juten zan. Zeak esaten dia ba, San Isidruak 15ian? Eeeee, ze hil da hori? - Maiatzian. - Maietzian hamabostian, ez? Bai. Orduan. Ta bakizu, udaberridxa zan ta, gizonak'e antxotan ta, ez zian atunetan ta orduan ta, danak, gazte guztidxak eta juten giñan gora. Baiña guk itxeko bildurrakin, Garate gaiña harrapatu bihar, hartaka ez zeon bate sermoiikan itxian, egun argiz itxea etorritz geo. Gurasok bildur haundidxa zuen neskaakin ta. Bai, e, ez dakit. Orduan itxe launtza're asko zan, baiña guk ez gendun denborikan ezertako izan. Bai. Holaxen. - Eta Mian, e, ze izaten zan, Getaiko jendia bakarrik edo Zumaitik eta Aizarnazabal ta... - Ez, bazter guztititik etortzen zan, oso erromei polita izaten zan. Ta geo jendiak iten zuen bokaillo jan ta, batzuek afaldu're bai. - Taberna're izango zan. - Bai. Tripakidxak o zeeze hola, kaxuelitak eta eoten zian. Taberna? Bai. Uaiñ'e hala dao. Oain restau... zea, Azkue, hotela jarri duen oan, oso hotel polita. Atzo izan giñan azkena. Eta hortxe disfrutatzen giñan. Holaxe. - Eta erromeritan gustora hamen e... - Hamen bandakin ta gustoa. - Bandakin? - Bai. - Hobeto? - Bai. Baiña trikitixa're asko gustatzen zakun, e? Ordun dana hoixen zan, pelota, trikitixa... eta zea habek... banda txiki hori, ta... Uandikan'e bado

hamen, e, banda, baiña...

- Bai, oaintxe zeon, oaintxe zeon joten.

- Bai. Baiña hori idxa festetako ta horrela gehidxo, oan ez da horrela jaiero ta izaten.

- Eta, e, hori bandana zan gerra ondorenian? Gerra bukatu ta aurreneko urtietan o gero o?

- Nik beti ezautu det banda. Jaitan beti ezautu det banda. Esan dizut (esan txut), ba?

- Udaran, edo?

- Zumaitik eta Zarauztikan jende gaztia etortzen zan, mutill gazte ta.

Batzuek nobidxuak'e in zituen, eta, horrela. Uain kanbio, dana hamendikan dana alde in iten da, ez dao zeikan.

6. Gari-jotzea Agarreneko aurrean edo frontoian, auzolanean

- **Erref:** GET-017/010
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:20:00. **Bukatu:** 00:21:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Baserría » Baserriko lanak » Garia
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:

<p>Gari-jotzea Agarreneko aurrean edo frontoian egiten zen, baina beraiek ez zuten garirik egiten. Auzolanean egiten zen gari-jotzea. Gari-jotzearen ostean, hondartzara joaten ziren garbitzera. Etxeetan ez zegoen dutxarik eta hondartzan garbitzen ziren.</p>

7. Bainujantzi bat modernoa zela-eta amak sutan erre zuen

- **Erref:** GET-017/011
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:21:05. **Bukatu:** 00:22:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:

Etxeetan ez zegoen dutxarik eta hondartzan garbitzen ziren eta gatzak kentzera fraideetara joaten ziren. Emakumezkoen bainujantziak soineko luzeak izaten ziren. Etxean zuten bainujantzi moderno baten inguruko gorabeherak.

8. Ganadu-zain zeuden denbora beste lan batzuk egiteko aprobetxatzen zuten

- **Erref:** GET-017/013
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:23:46. **Bukatu:** 00:25:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Bide-bazterretan behiak zaintzen egoten zen. Orduan garbiagoak egoten ziren bazterrak. Behiak zaindu bitartean dotrina ikasten edo galtzerdiak egiten egoten ziren. Soroan ere lan asko egiten zuen eta baita ikatza eta egurra banatzen ere.

Transkripzioa

- Ta geo ganauakin berriz, ganaua esan dizut (esan txut) zenbat giñuzen: bi behi, bi txahal, bi txerri aldameneko [tejamanian], ta oilluak, astua, ta... danak kale-basarrira jateko ekarri behar izaten [...] astuakin. Ta geo bire-bazterretan ibiltzen nitzan ni behidzak zaitzen. Ta behin, bire-bazter guztik eon zian orduan danak garbi-garbi-garbi. Danak ateatzen giñuzen larrea. Eta beheko kamidxua, plaiko kamidxu horretan'e, asko ibili naiz ni ganauakin. Eta haor, plazatikan aldapa daon horretan, mendi horretan'e bai. Ta San Antongo mendidzan ze esanik ez! Ta badakizu zer zan gure zea, ganao-zaitzia?

- Zer zan?

- Dotriña ikasten edo galtzeta iten behidxakin genden bitartian. Gure bizimoua horrela izan zan. Beti lanian! Ta artillezko galtzerdixak eta iten itsasoa juteko ta...

- Gaiñea gazte-gazte, ez? Hamar-hamabi urtekin...

- Jesus! Nik ez dakit, e, hamasei-hamazazpi urte, ze izango nitun nik orduan. Ta gero, gure aita horrek esaten zun beti "souan'e in", [...] bazekin [...] beti zeeze iten neola, bea itsasoa jun arren. Ta itxian ezin izaten zian ikusi. Egualdi txarretan josten pixkat hasitzen nitzan ta, muturrakin ta patarrakin ta, "egualdi txarra iten [...]", "[...] ba soora, ba". Baiña, holaxe! Beti iruitzen souan eon bihar detela! Ta halaxen, dana lanian ikasi deu, ta bate penik ez dakat, eskolik ez det, baiña nahiko eskola lanian ikasi deu.

- Bai.

- Bai. Hori bai.

- Eta kale-baserriyan beste lanik eta izaten zan? Hor, e...

- Ikatza ta egurra partitzen'e bai. Egurrak partitu in behar izaten zian otarrak betetzeko ta. Gatza're deitzen zunak, ba, hura're pixatu ta zakuetan. Ta geo aitak beak eramaten zitun itxian zanian. Ta semia bai, Pakok'e bai. Horrelaxen, lan klase asko.

9. Garbitokian txanda itxaron behar izaten zuten emakumeek

- **Erref:** GET-017/014
- **Iraupena:** 0:03:32. **Hasi:** 00:25:40. **Bukatu:** 00:29:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Ganaduak plazako iturrira eramaten zituzten ura edatera. Labaderoa nolakoa zen deskribatzen du. Emakumezkoak han zeuden bitartean, txalupa-mutilek zirikatu egiten zituzten. Herri guztia plazako garbitokira joaten zen eta txandan egoten ziren zain. Ganaduak aldameneko putzuan edaten zuen ura. Behi baten inguruko anekdota.

Transkripzioa

- Hor, kale-baserriyak txarrena izango zun, e, terrenuak eta lurrak eta aparte ziala, ez?

- Bai, horixen, ba.

- Urruti.

- Ta gero, ganauak'e ura eratea, ez zan urik zean, askaetan, okoillotan ta. Plaza eramaten giñuzen. Ta plazako iturri zarra eukiko dezu dibujan beharbada ayuntamentuan, e! Han aska hiru erreglan zan, e! Hamen hasi naiz ni itxuran... ez dakit, dibujatzen'e ez dakit eta! Han! Dibujatzen'e ez dakit! Hau zan herriko labaderua. Hemen harridxak, harridxak, harridxak eta harridxak, harridxak. Ta gero, goro zan teillatua, hau zan teillatua. Teillato horren zean, hamen [zinkak eta] lagatzen giñuzen, petrilla honetan. Ta hemendikan beste hainbeste, [zinkak]. Ta txalupa-mutillak ba al dakizu ze iten ziguen? Arbidxan buruik haundidxenakin zuluakin kalabera jartzen ziguen kandelakin koska habetan gaiñetan, ta gu barruan lanian, hamen. Ta, "Ah!", bildurtuta. Broma jartzen ziguen txalupa mutillak. Geo illuntzetan ez zuen zer iñik eukitzen, ta guri tentatzen ibiltzen zian. Ta holaxe bizitza zan lehen. Nik ez dakit...

- Eta labaderuan, zan bai erropa garbitzeko eta bai ganadu askak'e bai?

- Ez! Geo hau zan... Luzia zan, e! Ta harri asko zitun. Oain esango dixut, ba! Ta txandan eoten giñan, e! Herri guztidxa horrea juten zan ta. Ba, hoi danak harridxak ta ur hau dana betia eoten zan. Ta garbitu harridxan ta uretan danok hantxe, saltsan. Garbitu... Geo hamen zan, honen onduan zan, labaderuan onduan zan, honela, uren zea bat, ura korrientian eoten zana. Ta geo ura korrientian ta geo honea beste zea bat, hiru puntan. Hau dana ganauen ura zan. Ta hau atai zea zan, harrizkua, kale kantoiak eukitzen duan holako harridxa, ta hemendikan sartzen zin ganauak, bazakien larreatik etortzian noa jun bihar zun ura eratea. Ta hemendik okoillotikan'e bazekien ura eratea noa zijuahten, plazatikan. Guk hurre giñakaun. Ez dakit bestiak eramaten zuten horrenbeste, hamen, kale honetakuak eta [...]. Behero giñan oaindikan ta plaza pasa bihar izaten gendun ganauakin, ta honea ohitura zaken, ta honea etortzen zian ura eratea. Hamentxe ura eraten zuen ta atzea, danba-danba-danba, okoilloa. Ta ganaua bagendun Iturritxiki, hiru txaletak pasata, hor zelai haundi bat gendun... ez dakit hauek danak esatia?

- Bai, bai, bai.

- Bai?

- Bueno, nahi badezu!

- Eta handikan... Bat bagendun, nik Suizua deitzen nion, behi gris zea, beix bat, oso jatorra zan, ondrea... Ba al dakizu ze iten zun hark? Tripa betetzen zunian zelaidxan, uan hainbeste kotxe ez zan orduan ta, danba-danba hasitzen zan eta okoilloaiño juten zitzaitan bestiak han lagata.

- Etxeaiño.

- Etxeaiño. Kamidxua dana korritu in behar da, e? Iturritxikitikan, Iturritxiki deitzen diogu guk, hiru txaletak pasa ta beste kamidxua plazaiño, ta geo hor Kale Nagusira sartu ta etxeaiño. Ta hark bazakin biria iñork zeatu gabe, ez zin harek bate preokupazioik ematen, ta ez zeon hainbeste kotxe, ta, ederki. Holaxe ibiltzen giñan.

10. Udaberrian italiarrak etortzen ziren antxoatara

- **Erref:** GET-017/017
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:33:05. **Bukatu:** 00:34:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Antxoa
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak

Laburpena:

Italiarrak etortzen zirenean Rosanean eta Pelaionean egoten ziren apopilo. Jatetxeak ziren bi hauek. Orain dauden jatetxeak berriagoak dira. Italiarrak udaberrian etortzen ziren antxoatara. Atetik atera zeuden fabrika txikiak.

11. Ia etxe guztietan zeuden bodegak

- **Erref:** GET-017/019
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:35:05. **Bukatu:** 00:36:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

Bodegak ia etxe guztietan zeuden. Ganadua zutenek ganaduarekin ekartzen zen arraina eta prestatu ondoren saldu. Hezetasun handiko lana zen.

12. Txerria hil eta odolkiak, txorizoak... egiten zituzten etxerako

- **Erref:** GET-017/021
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:37:00. **Bukatu:** 00:38:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

Laburpena:

<p>Bi txerri izaten zituzten etxean. Tabernetako sobrak eta pentsua ematen zieten txerriei. Bata etxerako hiltzen zuten eta odolki, urdaiazpiko eta abar egiten zuten. Urdaiazpikoa gazitu egiten zuten, txorizoak zintzilik jartzen zituzten lehortzeko. Artoak ere zintzilik edukitzen zituzten.</p>

Transkripzioa

- Eta, esan dezu txarriya're izaten zendula...

- Bai, bi txarri itxian hazitzen giñuzen. Ta bat, ba... Tabernetakuak ematen zizkiguen sobratutako baldeka gauzak eta, ta geo itxian erramolatzakin ta, artuakin, arto aliakin ta nahastutako pentsuak eta... ondo gobernatzen giñuzen guk txarrixdak, e! Ta geo bat itxeako hiltzen gendun, bestia ez dakit saldu o ze in zuan. Eta hori iten gendun itxian oholkidxak, eta txorixo, urdaiazpiko, danak itxian konserbatzen giñuzen. Ta guk goseik ez genduan

pasa, egidxa esan. Gu gazteik goseik pasatu gabiak gea.
- Txarriya gaiñera, oso-osorik aprobetxatuko zan, ez?
- Bai, oholkidxak eta danak iten giñuzen, txorizo ta dana. Ta geo urdaiazpikuak gazitu iten giñuzen, gure aitagazitu iten zitun, ta barriño batian jartzen zitun ta geo handikan, ba, bere, bere ekis denboa atea, ta ya helduta zaben ta, garbitu ta rajatu ta, urdaiazpikua, earra.
- Eta nola konserbatzen zian txorixuak eta oholkiyak eta...
- Txorixuak eta iten giñuzen, ta, goiko tetxotan txintxilika jartzen giñuzen sekatzzen.
- Sukaldian bertan?
- Sukaldian ahal zan tokidxan. Lehen artuak'e zeak iten zian, montoiak iten zian ta txintxilika jartzen zian. Behian ez, traban batetikan dana jasotze arren. Azkenengo apurrak, ba, okoilluan ganauei ta horrela. [Lakras] asko indakuak gea! Bizi guztidxa lanian.

13. Lehen arraina gertuago egoten zen

- **Erref:** GET-017/022
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:38:36. **Bukatu:** 00:39:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Antxoa
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra

Laburpena:

Moilan despeskan lan handia egoten zen: buruak kendu sareetatik, sareak garbitu... Arraina gertuan egoten omen zen lehen. Aita arrantzalea zen, motor txikiarekin ibiltzen zen. Arratsaldean sarea botata uzten zuten eta goizean antxoaz beteta jasotzen zuten.

14. Tretza betetzea nola egiten zuten

- **Erref:** GET-017/024
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:41:10. **Bukatu:** 00:44:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Antxoa
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

Tretza betetzea: antxoak amuarekin jartzen zituzten eta otarra bat betetzen joaten ziren. Otarrari makil luze bat jartzen zitzaion alderik alde bi heldulekurekin. Antxoak banaka amuetan jarri eta otarra edo kaxa hori betetzen aritzen ziren emakumeak. Gizonezkoek bi heldulekueetatik hartu eta goizaldean itsasora botatzen zituzten. Era honetan egunero bisigua, papardoa, losa, kolaioa... arrain goxoak hartzen zituzten. Gero harrapatutakoa banatu egiten zen. Antxoa txikiak prestatu egiten zituzten gazituta horretarako.

15. Komediante asko etortzen ziren Getariara

- **Erref:** GET-017/025
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:44:50. **Bukatu:** 00:46:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Umetako jolasak: kinkilisetan, matxisaltoka, kanikatan... Udan komediantek etortzen ziren Aldamar kalera. Jende guztia kalera ateratzen zen aulkia hartuta. Errifa egin eta opari bat ere zozketatzen zuten.

16. Umetako jolasak: kinkilisetan, maxisaltoka, xakaponetan, potorro-potorroka...

- **Erref:** GET-017/026
- **Iraupena:** 0:03:29. **Hasi:** 00:46:44. **Bukatu:** 00:50:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Jolasak: kinkilisetan, makilak lurrean sartzen. Tinen aroekin ere jolasten zuten. Bale-baleka. Maxisaltoka. Diaboloarekin ere jolasten zuten. Herriko bi neska omen ziren trebeenak diaboloarekin. Xakaponetan ere aritzen ziren udaletxe azpian. Potorro-potorroka.

17. Jolas bakoitzak bere lekua izaten zuen

- **Erref:** GET-017/027
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:50:13. **Bukatu:** 00:51:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Jolas bakoitzak bere lekua izaten zuen. Kaniketan edo kinkilisetan bere amonaren etxe inguruko plazan egiten zuten; udaletxe azpian xakaponetan.

18. Getariako hizkera Zumaia, Zarautz eta Oriokotik desberdina

- **Erref:** GET-017/029
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:53:10. **Bukatu:** 00:54:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Bereizten dituela inguruko herrietako hizkerak Getariakotik dio. Zumaian lehenago "xa xa" hitz egiten omen zen, baina oraingo gazteek ez.

19. Elizako Jesu Kristoaren inguruko kontuak

- **Erref:** GET-017/031
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:55:28. **Bukatu:** 00:57:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak

Laburpena:

<p>Gaztetxoak zirela, kanpandorrera igotzeko ohitura izaten zuten. Elizaren erdian Jesu Kristo handi bat omen dago eta gogoratzen du nola eskaiolarekin zurituta ikusi zuten irudi hori. Gero jakin zuten gizon bat kartzelatik aterata ekarri zutela lan hori egiteko.</p>

20. Fabiolaren familiaren eraikinak

- **Erref:** GET-017/033
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:59:48. **Bukatu:** 01:00:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Bere ama bizi zen etxea Fabiolaren amarena zen eta baita herriko jauregia ere. Bere ama bizi zen etxea bihitegia omen zen eta bertan biltzen omen zituzten garai batean aristokratentzat lehengaiak.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-01-28

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com